

EAJ-PNVk eta PSE-EEk zerga-erreforma bat adosteko harremanak hasi dituzte, progresibilitatea areagotzeko eta euskal gizarteak dituen erronkei erantzuteko

EAJ-PNVren eta PSE-EEren buruzagitzek harremanak hasi dituzte dagoeneko zerga-erreformaren lanei heltzeko, alderdi biek ezinbesteko jotzen baitute progresibilitatea areagotzeko eta euskal gizarteak aurre egin beharko dien erronkei erantzuteko. Bilera hau prozesuaren abiapuntu delarik, lanak elkarren artean egingo dituzte alderdi biek erakundeetan partekatzen duten erantzukizunaren ildotik.

EAJ-PNVk eta PSE-EEk ulertzen dute etorkizuneko zerga-aldarezpenei buruzko akordiorako abiapuntua dela 2013ko erreformari eta 2018an egin ziren doikuntzei ematen zaien balorazio ona. Herrialde historikoaren fiskalitateak sarreren nahikotasuna ahalbidetu du harrezkero, kalitatezko zerbitzu publikoiei eusteko eta ekonomia produktiboari laguntzeko, progresibilitate zentzudun baten barruan.

Gure inguruan erregistratu diren aldaketek eta ezustean eman diren inguruabarrek – pandemia, esaterako, edo krisi energetikoak– gure bizimodurako ekarri dituzten ondorioek exijitu digute egoeraren araberako neurriak hartzea, orain ebaluatu beharko direnak.

Euskadikoa moduko gizarte modernoak fiskalitatearen bidez erantzun behar die, aberastasuna banatzeko eta desparekotasun-egoerei aurre egiteko tresna boteretsua baita, esparru ezberdinatan biziko diren eraldaketa nagusiei. Demografiaren erronkak, transformazio digitalak, ekonomia jasangarriak, empleguan emango diren aldaketek eta konta ezinezko fenomenoek erantzun egokia behar dute fiskalitatearen bidez, zeinarekin alderdi biok konpromisoa baitaukagu.

EAJ-PNV eta PSE-EE bat gatoz, gainera, foru-herrialdeetan aberastasun handien Elkartasun Zerga moldatuko dela berrestean, Batzorde Mistoan adostu baitzen 2022 urte amaieran. Prozesu hori amaituko da Diputatuen Kongresuan Ekonomia Hitzarmenaren Legea aldaraztean, oraindik egin gabe dagoena, eta Batzar Nagusietan arautzean.

Bilbon, 2023ko urtarrilaren 31n

EAJ-PNV y PSE-EE inician los contactos para acordar una reforma fiscal que aumente la progresividad y responda a los retos que afronta la sociedad vasca

Las direcciones de EAJ-PNV y PSE-EE han iniciado los contactos para abordar la reforma fiscal que ambas formaciones políticas consideran necesaria para aumentar la progresividad y responder a los retos que afronta la sociedad vasca. Los trabajos se desarrollarán, a partir de esta reunión inicial, de forma conjunta, atendiendo a la responsabilidad institucional que comparten los dos partidos.

Tanto EAJ-PNV como PSE-EE consideran que un acuerdo sobre futuros cambios fiscales debe tener como punto de partida una valoración muy positiva de la reforma de 2013 y los ajustes introducidos en 2018. La fiscalidad de los Territorios Históricos ha permitido, desde entonces, garantizar ingresos suficientes para el mantenimiento de unos servicios públicos de calidad y el apoyo a la economía productiva, dentro de un marco razonable de progresividad.

Los cambios que se han ido registrando en nuestro entorno y circunstancias inesperadas, como la pandemia o la influencia determinante de otras como la crisis energética, han exigido a lo largo de estos años la adopción de distintas medidas coyunturales que deben ser evaluadas.

Una sociedad moderna como la vasca debe responder con la fiscalidad, una potente herramienta de reparto de la riqueza y de lucha contra la desigualdad, a las grandes transformaciones que va a experimentar en distintos ámbitos. El reto demográfico, la transformación digital, la economía sostenible, los cambios en el empleo y un sinfín de fenómenos más requieren una respuesta también desde la fiscalidad con la que los dos partidos están comprometidos.

EAJ-PNV y PSE-EE coinciden, además, al reafirmarse en la adaptación en los territorios forales del Impuesto de Solidaridad de las grandes fortunas, concertado en la Comisión Mixta a finales de 2022, proceso que debe concluir con la modificación de la Ley del Concierto en el Congreso de los Diputados, todavía pendiente, y su regulación en las respectivas Juntas Generales.

Bilbao, 31 de enero de 2023